

Joxean Agirre

## ENEKO IRIGARAY ALJERIAR KONEXIOA ETAren sortzaile baten ibilerak




### SAIAKERA

130 or. | 13,5 x 21,5 cm. | PAPER-AZALEZ

Salneurria 15,80 €

ISBN 978-84-17065-40-9



1936an jaio zen Eneko Irigaray, etako sortzaileen taldean gazteena eta atipikoena ere bai seguru asko. Iniziatiba handikoa, marxista goiztiarra eta heterodoxo samarra, ez zuten inoiz atxilotu, ez zuen espetxerik zapaldu eta 1961ean falangistaz beteta Donostiara zihoan trenaren kontra burutu zuten atentatuaren ondoren atxilotetak hasi zirenean muga pasatzea erabaki zuen, baina Ipar Euskal Herrian ere ez zuen errefuxiatu paperik eskatu eta espainiar pasaportearekin jarraitu zuen eta jarraitu du geroztik ere bizitzen egon den lekuetan egoiliar gisa lan eginez.

1965eko martxoan iritsi ziren Argelera Eneko Irigaray eta Julen Madariaga, lehenik Estatu frantsetik kanporatuak izan eta ondoren sei hilabeteko espetxe zigorra jaso ondoren ihesi. Aljeria independentzia lortu berria zen eta mundu osoko liberazio mugimenduek ordezkartzak zituzten. Eneko Irigaray bertan emango zituen ondorengo hamaika urteak, etaren ordezkartzaren kargu. Hala, bada, donostiarrak ez du beharbada eragin funtsezkorik izan etaren bilakabide estrategikoan, erabakiak hartzeko orduan beti minorian egotea egokitu baitzitzaion, baina bere lana ezinbestekoa izan zen nazioartean erakundeak izan zuten proiektzioan.



### Joxean Agirre Odriozola

(Azpeitia, 1949) euskal idazle eta kazetaria da. Soziologia ikasi zuen Parisen eta kazetaria izan da *Egin* eta *Gara* egunkarietan. Hainbat nobela idatzi ditu: *Romain* zen bere izena,

*La lutte finale*, *Zwei Frauen*, *Adiskide bat nuen*, *Gizajoen katalogoa* eta *Goldsmithen ikaslea*. Aipatu eleberriez gain, *Hitza hitz: Txillardegirekin solasean* liburua ere argitaratu zuen, Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegiri* egindako elkarrizketa luzea; hau bere bigarren elkarrizketa liburua da.



Tel. 948 703 934  
txalaparta@txalaparta.com  
www.txalaparta.eus